

3. gaia

PERTSONA JURIDIKOAK

1. Pertsona juridikoaren kontzeptua
2. Pertsona juridiko motak
3. Elkarreak
 - a) Kontzeptua
 - b) Indarrean dagoen legeria
 - c) Elkarrearen egitura
 - d) Elkarrearen eraketa
 - i) *Akta*
 - ii) *Estatutuak*
 - iii) *Erregistroa*
 - e) Elkarrearen organoak
 - f) Etendura eta deuseztapena
4. Fundazioak
 - a) Kontzeptua
 - b) Indarrean dagoen legeria
 - c) Subjektuak
 - d) Eraketa
 - e) Zuzkidura edo hasierako ondarea
 - f) Fundazioen antolaketa
 - i) *Patronatua*
 - ii) *Babesgoa*

1. Pertsona juridikoaren kontzeptua

Gizakien ekintza aukerak mugatuak dira, bai denboran zehar zein eraginaren arabera, pertsona fisikoaren bizitza luzapena mugatua baita. Hori dela eta, gizakiaren helburu anitz bakarka jardunez ezin daitezke lortu, gizakiaren baliabidetatik at daudelako edo bere bizitzak baino gehiago dirautelako. Horrez gain, gizakiak taldetan lan eginez bere helburuak hobeto edo merkeago lor ditzake.

Hori horrela izanik, gizakiek helburu ekonomikoak lortzeko batzearen erabakia hartzen dutenean, baltzuak osatzen dituzte. Adibide gisa aipa dezakegu inguruan dugun edozein enpresa (Eroski, BBK e.a.). Bestalde, gizakiak, irabazi asmorik ez duten baina gizarte ororentzat onuragarriak gerta litezkeen helburuak lortzeko ere, bil daitezke. Besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu: mendi talde bat, ekologiaren aldeko taldeak, arraun talde bat edo kirola egiteko dauden hainbat elkarte e.a. Azkenez, gizartearen antolaketa politiko eta administrazio mailakoa aurrera eramateko, modu ezberdinetako erakundeak sortzen dira, hots, Estatua, autonomia erkidegoak, udalerrriak, aldundiak e.a.

Giza taldeek beren ondare propioarekin jardun dezakete trafiko juridikoan (lokalak, materiala eta e.a. erosten, beren mozkinak saltzen, langileak kontratatzen eta

zergak ordaintzen besteak beste). Talde horiek osatzen duten banakoen borondateatik at berezko borondate adierazpenak egin ditzakete, zeinak talde kide guztien borondatearekin bat etor ez daitezkeen.

Esaterako, baltzu anonimo batek erabaki bat hartzen duenean gerta liteke bere bazkide batzuk aipatu erabakiarekin ados ez egotea, baina gehiengoak hala erabaki duenez errespetatu beharko dute.

Aipatu giza taldeak errealitatean sortzen direnez, hauetariko batzuei legeak nortasun juridikoa esleitzea erabaki du eta berezko nortasun juridikoa onartzen die. Honen bitartez, giza taldeak demandatu, erosi, saldu, kontratatu e.a. egin dezake, gizaki bat izango balitz bezala.

Dena dela, giza taldeek orok ez dute nortasun juridikoa izango, hori lortzeko beharrezkoa baita legeak espresuki hala onartzea. Aipatu aitorpena ez balego, giza taldeak ez luke bere partaideengandik autonomoki funtzionatuko eta jarduera juridikoan ariko liritekeenak pertsona fisikoak izango liriteke .

Arestian ikusi dugunez, pertsona fisikoaren nortasuna onartzeko ez da behar dagokion erregistroan bere jaiotza inskribatzea, aipatu inskripzioa adierazlea baita; pertsona juridikoaren kasuan, ordea, legeak zenbait prozedura eraentzen ditu giza taldeak berezko nortasun juridikoa lortzeko eta beteko ez balira, ez luke jarduera juridikoan autonomiarekin aritzeko gaitasunik lortuko. Adibidez, baltzu baten eraketa Merkataritza Erregistroan inskribatzea beharrezkoa da eta hori egin ezean, giza taldeak ez luke nortasun juridikorik izango.

Ikus daitekeenez, ez da nahikoa giza talde bat egotea nortasun juridikoa izateko, behar-beharrezkoa baita, ordea, legeak horren aldeko espresuki aldarrikapen bat egitea.

Hori guztia kontuan izanik, KZren 35. artikuluan aipatzen da nor diren pertsona juridikoak:

"1. Legeak aitortu dituen eta interes publikoa duten korporazio, elkarte eta fundazioak.

Horien nortasuna hasten da zuzenbidearen arabera baliozkotasunez eratu diren une beretik.

2. Interes pribatuko elkarteak, horiek zibilak, merkataritzakoak nahiz industriakoak izan, baldin eta legeak berezko nortasuna ematen badie, elkarkideengandik gain lokabe".

2. Pertsona juridiko motak

Aipatu KZren 35. artikulua arabera Kode Zibilak lau pertsona juridiko mota desberdintzen ditu.

1. Interes publikoko korporazioak
2. Interes publikoko elkarteak
3. Interes publikoko fundazioak
4. Interes partikularreko elkarte zibilak edo merkataritzakoak

KZren 36 artikulua honako hau eransten du: *"Sozietate-kontratuari buruzko xedapenek arautuko dituzte, kontratu horren izaeraren arabera, aurreko artikulua 2.*

zenbakian aipatutako elkarteak".

1. Korporazioak: lehenbizi aztertuko ditugun pertsona juridikoak korporazioak izango dira. Korporazioak zuzenbide publikoko pertsona juridikoak dira, hortaz, zuzenbide publikoaren xedapenek eraenduko dituzte. Besteak beste, Estatua, Autonomia Erkidegoak, probintziak, udalak eta Administrazioaren menpe dagoen bestelako erakundeak dira (azken hauen artean, adibide gisa, Unibertsitatea, EITB, Gizarte Graduatu Bazkundera, kirolen federazioak eta abar aipa ditzakegu).

2. Elkarteak: pertsona juridiko hauek interes publikokoak dira, beren helburua irabaziak lortzea ez delako, edo nahiz eta irabaziak lortzea izan, ez dira euren bazkideen artean banatzeko, aitzitik, gizartearentzat onuragarria den zerbait lortzea dute helburu. Adibidez, minbiziak kaltetuak diren pertsonak laguntzea, ONG direlakoak e.a. Izan ere, aipatu helburua da interes partikularreko elkarteetatik desberdintzen dituen, azken hauetan irabazi asmoa baitago.

3. Interes publikoko fundazioak: erakunde hauek pertsona juridikoak dira, legeak horrela onartzen baititu, baina ez dira giza taldeak. Fundazioa helburu altruista baterantz bideratzen den ondasun multzoa da.

4. Interes pribatuko elkarteak: arestian aipatu dugunez, giza talde hauek duten helburua irabazpidezkoa da. Zuzenbide zibilaren zein merkataritzaren eremuetan aritzeko erabili ohi diren elkarte hauei baltzuak deitzen diegu.

3. ELKARTEAK

a) Kontzeptua

Elkartea, zenbait pertsonak helburu komuna lortzeko eratzen duen organizazioa da. Izan ere, pertsona juridiko pribatua dugu nahiz eta lortu nahi dituen helburuak onura publikokoak izan. Horrez gain, helburuak zilegi, zehatz eta irabazi asmorik gabekoak izan behar dira.

Elkarteak eratzeko eskubidea Konstituzioaren 22. artikuluan jasotzen da: "*1. Elkartzeko eskubidea onartzen da*" eta honen ondorioz, elkartzeko askatasunak berez dakar elkarteak antolatzeko eskubidea ere.

Elkarteak antolatzeko eskubidea, legeek babesgarritzat jotzen dituen helburuak lortzeko erabiliko da. Honela, ezin izango dira eratu helburu pribatuak lortzeko elkarerik, honen adibide, Euskadiko Elkarteei buruzko Legeak (EEL) 3. artikuluan xedatzen duena: "*Lege honen eremuan sartuta dauden elkarteak oinarri personalista duten eta irabazi-asmorik ez duten erakunde pribatuak dira, xede partikularrak edo orokorrak lortzeko antolatu direnak eta inongo berariazko elkarte-araubideren menpe ez daudenak*"

Aitzitik, ez dira elkarteak izango, irabazi asmoarekin elkartzen diren bazkideek eratutakoak, edota bazkideen artean banagarriak diren irabaziak lortzeko eratzen direnak, hauek arestian aipatutako baltzuak izango baitira. Hara nola EELren 3. artikulua a) atalean xedatzen duenean: "*Lege honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira lanbide-elkargoak eta kontseiluak, mutualitateak, merkataritza, industria eta itsasketa-ganberak, zuzenbide publikoko korporazioak, ondasun-erkidegoak eta*

jabeen erkidegoak, kooperatibak, aldi baterako enpresa elkarteak, merkataritza sozietate edo sozietate zibil gisa eratutako elkarteak eta, orokorrean, kodeen artean banatzekoak diren mozkin ekonomikoak kortzea helburu duten elkarte guztiak".

b) Indarrean dagoen legeria

Elkarteen araudia estatu mailako zein autonomia mailakoa da. 1964ko Elkarteei buruzko legearen ordez **1/2002ko martxoaren 22ko Elkarte Eskubideari buruzko Lege Organikoa (EELO)** dago indarrean. Lege honek Konstituzioaren 22. artikuluan agertzen den elkartzeko eskubidea garatzen du, eta beraz printzipio horien arabera interpretatu beharko da. Izan ere, lehentasunez aplikatzekoa da EKren 22. artikulua eta bertan jasotzen denez,

"1. Elkartzeko eskubidea onartzen da.

2. Delitu gisa tipifikatuta dauden helburuak lortu nahi dituzten elkarteak edo delitu gisa tipifikatuta dauden baliabideak erabiltzen dituztenak legez kanpokoak dira.

3. Artikulu honen babesean eratutako elkarteak, publizitate efektuetarako soilik, erregistro batean inskribatu beharko dira.

4. Elkarteak arrazoitutako ebazpen judizialaren arabera bakarrik desegin daitezke edo beren jarduerak aldi baterako eten daitezke.

5. Ezkutuko elkarteak eta elkarte paramilitarrak debekaturik daude".

Autonomia erkidegoen legerien esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoak, gai honetan duen eskuduntza eskusiboa erabiliz, arestian aipatu dugun 7/2007 ekainaren 22ko **Euskadiko Elkarteei buruzko Legea (EEL)**.

c) Elkarteen egitura

Elkarte batek hiru osagai nagusi ditu: subjektuak, helburuak eta ondarea. Azter ditzagun osagaiok banan-banan.

a) Subjektuak: elkarteen osagairik garrantzitsuenak elkartuen aniztasuna da, horrek esan nahi du elkarte sortzeko hiru pertsona gutxienez behar direla. Era berean Euskal Autonomia Erkidegoaren Elkarteei buruzko Legeak hiru partaide edo gehiago egotea galdatzen du elkarte bat sortu ahal izateko. EELren horrela eskatzen du 7.1. artikuluan: *Elkarteak eratzeko, hartarako erabakia hartu behar dute hiru pertsona fisikok edo gehiagok".*

Bazkideak pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke

Elkarte bat sortu nahi dutenek jarduteko gaitasuna izan behar dute, horrela xedatzen da EELren 6.2. artikuluan *"Pertsona fisikoek eta pertsona juridiko publiko edo pribatuak elkarteak eratu ahal izando dituzte.*

a) Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoak, hau da, pertsona adindunak edo emantzipatuak". EELren 3,b) . artikulua onartzen du ere 14 urtetik gorakoek eratzea elkarte bat beren ordezkarien onarpenarekin, agiri bitartez egiaztatua.

b) Helburuak: bazkideek helburu komuna izateak berez dakar elkartzea eta xedeak zilegia eta zehatza izan behar du (EELoren 2. art.).

Zilegitasuna Konstituzioaren arabera interpretatu beharko da, 22.2. artikulua xedatzen duenaren arabera: *"delitu gisa tipifikatuta dauden helburuak lortu nahi*

dituzten elkarteak edo delitu gisa tipifikatuta dauden baliabideak erabiltzen dituztenak legez kanpokoak dira". Zilegi hitzak ez du esan nahi delitutzat jotzen diren helburuak dituzten elkarteak soilik legez kanpo daudela, baina baita lege, moral edo ordenu publikoaren aurkako helburuak dituztenak ere. 2002ko EELOk hainbat artikuluk garatzen dute zilegitasuna ezaren ondoriozko etendura eta deuseztapena epai baten ondorioz, hara nola 2, 4 3ta 38. artikulua.

EELoren 13. artikulua ezartzen duenez, elkartearen ekinbideetatik ondorioztatzen diren onura ekonomikoak, elkartearen helburuetarako dedikatu beharko dira soilik, eta inola ere ezin izango dira banandu bazkideen artean.

EELoren 15. artikulua arabera, elkarteak erantzungo du bere ondarearekin gizaki bat balitz bezala, eta hirugarrengeoi egindako kalteengatik ere, baina ez bazkideek beren ondarearekin, elkartearen izenean.

d) Elkartearen eraketa

i) Akta

Elkartea akta bidez eratzen da eta "akta horretan agertu behar da jarduteko gaitasuna duen zenbait pertsonaren asmoa (pertsona fisiko zein juridiko, legeak xedatutakoaren arabera) eta pertsona horiek borondatez hartzen duten erabakia, estatutuen arabera zilegi eta zehatza den helburua lortzeko".

Beraz, elkartearen eratzeko, beharrezkoa da sortzaileen adostasuna agerraraztea akta deitzen diogun agiri batean. Akta egiteko, legeak ez du formarik zehazten, bada, dokumentu publiko zein pribatua izan daiteke. Dena dela, legeak galdatzen du bazkideek elkarteari ondasun higiezinak jarriko balizkio, dokumentu publikoan eratzea.

ii) Estatutuak

Era berean Elkartzeko Eskubidearen Lege Organikoaren 7. artikulua estatutuak egitea beharrezkotzat jotzen du, eta Legeak berak zehazten du estatutu horien edukia:

1. Estatutuek honako alde hauek jaso beharko dituzte:

a) **Izena.**

b) **Egoitza**, bai eta elkarteak bere jarduerak gehienbat zein lurralde-esparrutan gauzatu behar dituen ere.

c) **Iraupena**, elkartearen eratzeko ez denean iraupen mugagabearekin.

d) Elkartearen **xedeak** eta jarduerak, zehaztasunez deskribatuta.

e) **Elkartekideak** elkartearen onartzeko edo horiek baja hartzeko, eta elkartekide horiek zehatzeko nahiz banantzeko betekizun eta modalitateak eta, hala denean, elkartekide-motak. Estatutuek jaso ahal izango dituzte, berebat, zein diren elkartekideek kuotak ez ordaintzearen ondoreak.

f) Elkartekideen **eskubide eta betebeharrak** eta, hala denean, elkartekide- -modalitate bakoitzari dagozkionak.

g) Elkartearen **jardunbide demokratikoa** bermatzen duten irizpideak.

h) **Gobernu- eta ordezkari-organak**, horien osaera, horien kideak hautatu eta ordezkari erregelak eta prozedurak, beraien eratzikizunak, karguen iraupena, karguei uzteko arrazoiak, euren erabakiak eztabaidatu, hartu eta betearazteko modua, eta erabaki horien ziurtagiriak eman behar dituzten pertsonak edo horretarako ahalmena duten kargudunak, eta organo horiek baliozkotasunez osatzeko betekizunak, bai eta

zenbat elkartekide behar diren ere, gobernu-organoen bilkurak deitu ahal izateko, edo eguneko aztergaien zerrendan gaiak proposatu ahal izateko.

i) **Administrazio**, kontabilitate eta agiri-araubidea, bai eta elkartearen ekitaldia amaitzeko data ere.

j) **Hasierako ondarea** eta erabili ahal izango diren baliabide ekonomikoak.

k) Elkartearen **desegiteko arrazoiak** eta, hori gertatuz gero, **ondarearen destinoa**. Destino horrek ezin izango du aldatu elkartearen irabazteko asmorik gabeko izaera.

Labur bilduz honako hauek izanik:

1. Elkartearen izendapena, *"ezin da izan erregistroan jadanik inskribatu diren elkartearen izendapen berbera, ezta antzekoa ezarri ere, nahasteak sortaraz ditzakeen horietakoa, alegia"*.

2. Elkarteak lortu nahi dituen helburu zehatzak, arestian esan dugunez, helburu horiek zilegiak ere izan beharko dira.

3. Elkartearen egoitza nagusia, eta izanez gero, elkartearen gainontzeko lokalak.

4. Jarduerak egiteko lurralde eremua.

5. Zuzendaritzako organoak eta administratzeko modua.

6. Bazkideak onartzeko prozedura eta bazkide izate hori galtzea.

7. Bazkideen eskubideak eta eginbeharrak.

8. Ondarearen eraentza: sortze ondarea, aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta urteko aurrekontuaren mugak.

9. Elkartearen desegitean, zertarako erabiliko den elkartearen ondarea.

iii) Erregistroa

EELoren 8, 9 eta 10. artikuluen arabera, erregistratu beharko dira elkarteak, argitarapen helburuetarako soilik.

e) Elkartearen organoak

Organoei dagokiena, antolatze askatasuna da printzipioa, baina Elkarteei buruzko Legeek, bai estatu mailakoak zein autonomikoak, agintzen dute gorengo organo bat egotea, biltzar orokorra, alegia. Gorengo organo hori bazkide guztiek osatzen dute, eta elkartearen erabakirik garrantzitsuenak hartzen ditu (EELoren 11. eta 12. art.ak. eta EELren 17.1. art.). EELren aipatu 17.1. artikulua hitzez hitz honela dio:

1. Elkarteak beti izan behar du gobernu-organoa bat, eta hori elkarteko presidentea bera izan daiteke, edo kide anitzeko organo bat".

Biltzarrak eratzeko *quoruma*, estatutuek ez badute besterik xedatu, lehengo deialdian bazkideen gehiengoa izango da (bertan daudenak eta ez daudenen ordezkariak kontuan hartuz); bigarren deialdian, ostera, askea izango da baina 24 ordu igaro baino lehen egin beharko da.

Kasu gehienetan, Zuzendaritzako Batzorde bat ere egongo da. Horren eginkizuna Biltzarrek hartutako erabakiak betearaztea izango da (EELoren 12. art. eta EELren 17.1.b) art.).

2002ko EELOk bere 12.2 artikuluan dioenez, elkarteak bere estatutuetan ezartzen duen arabera arituko da, Lege organikoak ezartzen duenaren aurkakoa ez den heinean. EELren 17. artikulua, bere aldetik, elkarteak bere estatutuetan beste organo batzuk eratu ahal izango dituela xedatzen du. Horien artean arruntenak honako hauek dira: lehendakari ordea, diruzaintzagilea eta idazkaria.

f) Etendura eta deuseztapena

Arestian esan dugunez, atal oparoa dugu hau lege berriaren arabera, eta hainbat artikuluk garatzen dute, Konstituzioaren 22. artikuluari jarraituz. Hara nola EELoren zenbait artikuluetan ezartzen dena:

2,7 art. *“Elkarteak legearen aurkakoak dira, delitu gisa tipifikatutako xedeak badauzkate edo bideak erabiltzen badituzte”.*

2,8 art. Paramilitar edo sekretutzat jotzen diren elkarteak debekatzen dira.

4, 5 art. *“Botere publikoek ez diete inolako laguntza-motarik emango onartze-prozesuan edo jardunbidean bereizkeria egiten duten elkarteei, jaiotzarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal edo sozialengatik”.*

4,6 art. Era berean indarkeria, gorrotoa edo terrorismoa edozein baliabide dela justifikatzen dituztenak.

38,2. artikulua arabera, *“2. Ondoko kasuetan bakarrik adierazi ahal izango da elkarteen desegitea:*

a) Elkarteek izaera ez-zilegia dutenean, zigor-legeen arabera.

b) Lege berezietan edo lege honetan ezarritako arrazoiengatik, edo legeria zibila aplikatzeagatik elkartea deuseztat”

Hau da, deuseztatu ahal izango dira zigor legeen arabera legez kontrakoak direnean, horretarako Zigor Kodearen 515. artikulua zerrendatzen du elkarteak zein kasutan diren legez aurkakoak, ondoko hauek alegia:

a) Delituren bat egiteko helburua dutenak, edo eratu ondoren delitu egitera sustatzen dutenak.

b) Talde armatuak eta erakunde edo talde terroristak.

c) Nahiz eta helburu zilegia izan helburu hori lortzeko indarkeria edota nortasunaren aldaketa edo kontrola erabiltzen dutenak.

d) Erakunde paramilitarrak.

e) Ideologia, erlijio, sexu edo arrazagatiko bazterkeria gorrotoa edo indarkeria bultzatzen dutenak.

Etenak behin-behineko jardueren geldiera suposatzen baldin badu ere, deuseztatzeak nortasun juridikoa azkentzea suposatzen du.

Legeak ondoko deuseztatze kariak jasotzen ditu bere 17. artikuluan:

“Elkarteak desegingo dira, estatutuetan ezarritako arrazoiengatik eta, hala denean, horretarako deitutako Biltzar Orokorreko elkartekideen borondate adierazpenarengatik, bai eta Kode Zibilaren 39. artikuluan ezarritako arrazoiengatik eta epai judicial irmoarengatik ere.

2. Desegite-kasu guztietan, ondareak izango du estatutuetan ezarritako destinoa.”

Artikulua labur bilduz:

1. Estatutuetan aurreikusten diren arrazoiengatik

2. Bazkideen borondatez

3. KZren 39. artikulua xedatzen dituenak, alegia: eratzeko aurreikusitako epea agortzea, aurreikusitako helburua burutzea edo aurreikusitako helburua lortzeazko bihurtzea.

4. FUNDAZIOAK

a) Kontzeptua

Fundazioaren definizioa 2002ko Fundazioei buruzko Legeak (FL) ematen du bere 2. artikuluan: *"Irabazasmorik gabe eraturako erakundeak fundazioak izango dira, baldin eta eratzaileren borondatez, erakunde horien ondarea modu iraunkorrean erabiltzen bada interes orokorreko helburuak lortzeko"*.

Fundazioa pertsona juridikoa da, interes orokorreko helburua duen ondarea, hain zuzen ere. Fundazioa ez du osatzen pertsona talde batek, elkarrean kasuan gertatzen den bezala, baizik eta helburu bera lortzeko batu den ondasun multzoak. Helburu horrek, legearen aginduz, interes orokorrekoa, egonkorra eta iraunkorra izan behar du eta fundatzaileak berak zehaztuko du zein izango den. Aipatu helburua estatutuetan jasoa geratuko da.

Konstituzioak 34. artikuluan onartzen du interes orokorrerako helburuak lortzeko fundazioak sortzeko eskubidea, legeak xedatutakoaren arabera. Dena dela Konstituzioak fundazio eskubidea onartzen badu ere, murrizketak ezartzen dizkio: batetik fundazioek *"legearen arabera, interes orokorreko helburuak"* izan behar dituzte. Bestetik, 34. artikuluan 2. lerroaldeak agintzen du elkarrean arautzen dituzten erregelak aplika daitezkeen; hori dela eta, legeak aurkako fundazioak izango dira delitu gisa tipifikatutako helburuak lortu nahi dituzten fundazioak, edota delitu bezala tipifikatutako baliabideak erabiltzen dituztenak ere. Horrez gain, fundazioak eten edo deuseztatzeko erabakiak botere judizialak hartuko ditu.

b) Indarrean dagoen legeria

Konstituzioak 34. artikuluan xedatzen du fundazioen eraentzak lege lerruneko arau baten bitartez arautua izan behar duela. Hortaz, fundazioei buruz indarrean dauden legeak aipatuko ditugu.

Konstituzioaren manu hori garatuz, Fundazioei buruzko 50/2002ko abenduaren 26ko Legea aldarrikatu zen (FL). Estatu espainiarraren fundazioak eraentzen ditu Autonomia Erkideetako legeekin batera. Izan ere, zenbait Autonomia Erkidegoek fundazioak arautzeko duten eskuduntzaren erabiltzean, berezko legeak aldarrikatu dituzte. Autonomia Erkidego hauek ondokoak dira: Katalunia 1982an, Galizia 1983an, Kanariar Uharteak 1990ean eta azkenik Euskal Autonomia Erkidegoaren Fundazioei buruzko 12/1994ko Legea.

FLren 2.2. artikulua xedatzen du fundazioa fundatzailearen borondateak, estatutuek eta lege honek xedatzen duenak eraenduko dutela.

c) Subjektuak

Subjektuak, fundazioaren eraketan sortzaile gisa agertzen diren pertsonak fisiko zein juridikoak dira. Hauek beren ondare guztia edo horren zati bat interes orokorrerako helbururen bat lortzera erabiltzean, fundatzaile bihurtzen dira.

Fundatzaile edo fundatzaileen alde bakarreko egintzak eratzten du fundazioa; egintza horrek ematen ditu fundazioaren jardunbiderako erregelak eta, hasieran behintzat, erregela horiek aldaezinak dira. Izan ere, behin fundazioa eratuz gero, fundatzailearengandik askatu egiten da eta sortzailea ez da jadanik fundazioaren "jabea" izango. Fundazioak, beraz, bere helburuak betetzeko eta bere ondarea kudeatzeko zuzendaritza organoa izan behar du. Patronatu izenaz ezagutzen da zuzendaritza organo hori eta bere kideak patronatu buruak izango dira.

Helburuak eta onuradunak FLaren 3. artikulua araberan *Interes orokorreko helburuak izan behar dutela eta 3. Ezin ezingo dira inolaz ere bere irabaziekin fundatzailea, patrono kideak edo beren senideak onuratu.*

d) Eraketa

Fundazioa bizien arteko negozio baten bitartez edo heriotza ondoko negozio juridikoaren bitartez, testamentuaren bitartez alegia, sor daiteke FLren 9. artikulua araberan.

a) **Bizien arteko** negozio juridikoa fundazioa sortzeko, borondate adierazpena jasotzen duen eskritura publikoaren bitartez gauzatuko da.

Eskritura eratzailleak edota testamentu eratzailleak honako edukia izan beharko du: fundatzaileak identifikatzeko datuak, fundazioa eratzeko borondatearen adierazpena, zuzkidura eta horren betekizunak, patronatu buruen izendapena eta fundazioaren estatutuak.

Era berean aipatu estatutuek, gutxienez ondokoak jaso beharko dituzte (LFren 10. art)

1. Fundazioaren izena, besteetatik bereiztua izan behar dena.
2. Fundazioaren helburuak zehaztea.
3. Fundazioaren egoitza
4. Fundazioak bere jarduerarik nagusiak zein lurralde eremutan gauzatuko dituen; horrek balio izango du erabakitzeke fundazioa Autonomia Erkidego baten legeriaren esparru barruan dagoen edo, aitzitik, estatu mailako legeriaren eskuespenaren barne kokatu behar den.
5. Baliabideak fundazioen helburuetara aplikatzeko oinarritzko erregelak.
6. Onuradunak nor diren zehazteko oinarritzko erregelak.
7. Fundazio kideak nor izango diren eta horien izendapena, ordezkapena eta kargutik kentzea.

Horrez gain, fundatzaileak nahi duen beste edozer adieraz dezake estatutuetan.

a) **Heriotza ondoko** jaraunspenez, bete beharko dira testamentuan agertzen diren baldintzak..

Fundazioak, fundazioen erregistroan inskribatzen denean lortuko du bere nortasun juridikoa, bai bizien arteko negozio juridikoaren bitartez sortua denean, zein testamentuaren bitartez sortua bada ere.

Fundazioak, interes orokorrerako helburuak dituztelako, Administrazioaren babesaren pean daude. Eratze prozesuan eskuartzen du Administrazioak, adierazi behar baitu txosten batez fundazioak interes orokorrekoak diren eta zuzkidura nahikoa den ala ez.

e) Zuzkidura edo hasierako ondarea

Hasierako ondarea eratzeko eskritura publikoan jaso behar da. Zuzkidura fundazioari egindako ondasunen doako besterentzea da. Fundazioak besterendu zaizkion ondasunen titulartasuna nortasun juridikoa lortzen duen unetik eskuratuko du. Behin aipatutako nortasun juridikoa lortuz gero, edonoren aurrean ondasun eta eskubide guztien titular gisa agertuko da. Horrez gain, bestelako ondasunak ere eskura

ditzake, bere ondarea osatuz.

FLren 12 artikuluan arautzen da: *Hasierako ondarea, edozein motatako ondasun zein eskubidez osa daiteke, eta nahikoa izan behar du fundazioaren helburuak betetzeko, horretarako nahikotzat hartuko da 30.000 euroko balioa duena.*

Fundazioak bereganatuko eskubide eta ondasun horien jabetza nortasun juridikoa eskuratzen duen unean. Horrez gain, eskuratu ahal izango ditu eskubide eta ondasun gehiago ordutik aurrera.

f) Fundazioen antolaketa

i) Patronatua

FLren 14tik 18ra bitarteko artikuluetan arautzen da. Fundazioaren gobernu organoa da, eta fundazioa administratu eta ordezkatzeko ahalmenak ditu. Patronatua gutxienez hiru kidek osatuko dute, patronatu buru deiturikoak, eta euretariko batek presidentearen kargua bereganatuko du. Patronatu buruak pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke. Patronatu buru kargua dohainezkoa da eta pertsona fisikoa balitz, norberak erabili behar du. Patronatu burua pertsona juridikoa izango balitz, ordea, eskuordetu ahal izango da.

"Patronatuari dagokio fundazioaren xedeak betetzea, fundazioaren ondarea osatzen dituzten ondasun eta eskubideak kudeatzea beren etekin eta erabilpen egokiena bermatuz".

Patronatuak bere kudeaketaren kontuak Babesgoari eman beharko dizkio. Patronatuak fundazioaren ondarea kudeatu, administratu eta besterentzeari buruzko erabakiak hartuko ditu. Baina zenbait egintzak burutu ahal izateko, kasu batzuetan Babesgoaren baimena beharko da eta besteetan Babesgoari egintza horiek burutuko direla jakinarazi beharko zaio.

ii) Babesgoa

Fundazioen babesgo funtzioak Administrazioak berak erabiltzen ditu. Aipatu administrazioa, Estatu Administrazio Orokorra izango da estatu mailako legeriaren menpe dauden fundazioen babesgoaren eginkizuna erabiltzeko, aitzitik, Autonomia Erkidego baten lurraldean jarduera nagusiki garatzen duten fundazioei dagokienez, aipatu eginkizuna Administrazio autonomikoen menpe egongo da.

Babesgoaren eginkizuna fundazioak kontrolatzea eta jagotea da, eta eginkizun hau estatu mailako legeak zein lege autonomikoek horretarako hautatu dituzten administrazioko sailek erabiltzen dute.